



## **UHARTEKO UDALAREN KIROL KUDEATZAILE DEIALDIA**

Alkatetzaren 2026ko urtarrilaren 20ko ebazpenaren bidez onetsia.

Deialdia egin da kirol kudeatzaile lanpostu bat kontratatzeko, Nafarroako Lansare Nafarroako Enplegu Zerbitzuaren bidez, aldi baterako eta lan-erregimeneko kontratazioaren bidez.

**Espteia. 79/2026**

Uharteko Udaleko alkateak, 2026ko urtarrilaren 12an, deialdia onetsi zuen ondoko oinarriekin bat etorritz.

### **OINARRIAK**

1.-Deialdia egin da hautaketa proben bidez izangaien zerrenda bat osatzeko, Nafarroako Enplegu Zerbitzua-Nafar Lansarearen bidez, **KIROL KUDEATZAILE** postuan aritzeko.

Deialdi hau Nafarroako Administrazio Publikoetan sartzeko Erregelamendua onesten duen ekainaren 5eko 113/1985 Foru Dekretuaren 42 2.d) artikulua arautzen du. Haren bidez, Nafarroako administrazio publikoek aldi baterako kontrataziorako izangaien zerrendak osatu ahalko dituzte.

**B mailako** pertsona bat kontratatuko da lanaldi osoko **aldi baterako kontratu** baterako. Gutxi gorabehera irailera arte iraungo du. Kontratazioa berehalako izanen da. Gainera, probak gainditzen dituzten pertsonak aldi baterako kontratatzeko zerrendan sartuko dira, kontrataziorako barne-araudian ezarritako baldintzetan.

Probaldia sei hilabetekoa izango da.

Lanaldia araudi aplikagarrian ezarritakoa izanen da, baita opor, jaiegun, dieta eta gainerako eskubideen araubidea ere. Hala ere, lanaldia noiznahi aldatzen ahalko dute administrazio organo eskudunek, zerbitzuaren beharrek hala eskatzen dutenean. Ohiko ordutegia, printzipioz, 07:30etik 14:50era izango da.

1.2. Udalaren kirol instalazioetan kirol kudeatzaile batek dituen eginkizunak beteko ditu:

- Ezagutza teknikoak ematea, Udalaren Kirol Zerbitzuko zuzendaritzak epe labur eta ertainerako udal plangintza prestatzeko ekintzak eta neurriak proposatuz
- Kirol Zerbitzuan burutzen diren udal jarduerak prestatzea (Udal Teknikariak gainbegiratuta), horien jarraipena eta ebaluazioa egitea.
- Udal Kirol Zerbitzuko (UKZ) zuzendaritzak ezarritako protokolo edo ekintza guztiak ezartzea eta gainbegiratzea kirol instalazioetan abonatuak eta instalazio horietako osasun-programetan parte hartzen dutenak sartu eta erabiltzeko.
- Kirol instalazioetako kirol ekipamenduen eta bitartekoen erabilera egokia, kontserbazioa eta mantentze-lanak ikuskatzea.
- Kirol instalazioetan antzemandako beharren arabera, UKZri ekipo eta baliabide berriak erosteko edo kontratatzeko proposatzea, eta horiek eskuratzeko behar den informazioa ematea.
- UKZko zuzendaritzari abonatuak erakartzeko kanpainak egitea proposatzea, edo kirol instalazioen finantzaketa hobetzeko edozein jarduketa egitea, instalazioen eta horien zerbitzuen marketineko eta salmentako lan komertziala etengabe eginez.

- Kirol instalazioetako abonatuak eta erabiltzaileen eskaerak eta erreklamazioak jasotzea, haiei erantzutea eta, hala badagokio, UKZko zuzendaritzari helaraztea.
- Nafarroako kirol instalazio publikoen kudeaketan, osasun-arloan, datuak babesteko legean, kirol ekipamenduen segurtasunean eta abarretan aplikatu beharreko lege araudia betetzen dela gainbegiratzea, UKZren jarraibideen arabera.
- Uharteko Udalaren kirol instalazioak arautzen dituen Araudia edo berariazko arautegiaren aplikazioan laguntzea.
- Instalazioetan egiten diren kontratazioen gainbegiraketan laguntzea, behar bezala funtziona dezaten, eta UKZko zuzendaritzari proposatzea beharrezkoak diren kontratazio berriak.
- Instalazio horietarako onetsitako aurrekontu-partiden exekuzioaren gainbegiraketan laguntzea, eta exekuzio horren berri ematea aldiaren behin UKZko zuzendaritzari.
- Kirol Zerbitzuak tokiko kirol sistema garatzeko agintzen dituen ekintza guztiak aurrera eramatea.
- Udalaren Kirol Zerbitzuaren kudeaketan Kirol Koordinatzaileari laguntzeko funtzio orokorrak eta haren ordezkia, bere mailaren arabera eginkizunetan, absentsia kasuetan.
- Aipatutakoez gain, lanpostuak eskatzen dituen ahalmen eta gaitasun profetionalekin koherente izanik, ezarritako helburuak lortzeko agintzen zaizkion beste zeregin batzuk egitea.

1.3. Lanpostuak Nafarroako administrazio publikoen zerbitzuko langileen B mailari dagozkion lantariak izan behar dituzte. Era berean, plantilla organikoan aurreikusten diren lantari osagarriak jasoko dituzte, baita hitzarmen kolektiboz lor daitezkeenak ere.

## 2.-Izangaiek bete beharreko baldintzak.

Probak hasten diren egunean, izangaiek baldintza hauek bete beharko dituzte:

a) Espainiako edo Europar Batasuneko estatu kide bateko nazionalitatea izatea, edo Europako Erkidegoak sinatu eta Espainiak berretsita Nazioarteko Itunaren aplikazio-eremuan sartutako estatu batekoa, langileen zirkulazio librea aplikagarria denean. Halaber, Espainiako nazionalitateko pertsonaren ezkontideak, Europar Batasuneko beste estatu kide batzuetakoek eta nazioarteko tratatuen aplikazio-eremuan sartutako estatuetaoek ere parte hartu ahal izango dute, baldin eta eskubide hori duten adingabeak eta ezkontide gisa bizi ez badira, edo ezkontide gisa bizi ez badira, 21 urtetik gorakoak badira.

b) Hamasei urte beteak izatea eta erretiroa hartzeko gehieneko adina ez gaintzea.

c) Bete behar dituen eginkizunetan aritzeko adinako gaitasun fisiko eta psikikoa izatea.

d) Unibertsitateko diplomatura, ingeniartza tekniko, arkitektura tekniko edo baliokidea izatea, edo eskaerak aurkezteko epea bukatzen den egunean titulu hori eskuratzeko moduan egotea.

Atzerrian lortutako tituluak badira, homologazioaren egiaztagiria eduki beharko da.

Eskatutako kategorian sartzeko ikasketa baliokideak alegatzen dituzten izangaiek baliokidetasun hori aitortzen duen lege- edo erregelamendu-xedapena aipatu beharko dute edo Hezkuntza eta Zientzia Ministerioak emandako ziurtagiria aurkeztu.

e) Langabezia edo enplegu hobekuntza egotea eta **Nafarroako Enplegu Zerbitzua-Nafar Lantariak edo beste enplegu zerbitzu publiko batean** inskribatuta egotea. Baldintza hori dagokion enplegu-zerbitzu publikoak emandako enplegu-eskaeraren frogagiria aurkeztuz justifikatuko da, eta frogagiri horrek indarrean egon beharko du.



f) **Euskararen Gaitasun Agiria (EGA)** izatea, Nafarroako Gobernuak emana, edo ofizialki aitortutako titulu baliokidea, eta zehazki, Hizkuntzen Europako Erreferentzi Marko Bateratuko **C1 mailaren** baliokidetzat jotzen diren tituluak.

g) Eginkizun publikoak betetzeko ezgaitua edo gabetua ez izatea, eta inongo administrazio publikoren zerbitzutik bereizia ez izatea. Espainiako nazionalitatea ez duten izangaiek zinpeko aitorpena edo hitzematea aurkeztu beharko dute, beren Estatuko Funtzio Publikoan sartzea eragozten dien diziplina zehapenik edo zigor penalik ez dutela adierazteko.

Izen-ematea erregistro bidez egin behar da, instantzia orokor baten bidez, **otsailaren 2ko (astelehena) 12:00ak baino lehen**, webgunean ([www.huarte.es](http://www.huarte.es)), edo, bestela, zuzenean, udaletxeko bulegoetan, “kirol kudeatzaile deialdia” adieraziz. Izena emateko orria bete behar da (II. eranskina), eta **NANa, titulazio akademikoa, euskarako titulua eta Nafarroako Enplegu Zerbitzuko inskripzioa erantsi eta, aukeran, merezimenduak egiaztatzen dituzten agiriak.**

Modu telematikoan eginez gero, **fitxategi guztiek edukiaren araberrako izena izan beharko dute.**

Baldintza horiek guztiak agiri bidez egiaztatu beharko dituzte hautatzen diren eta aldi baterako kontrataziorako deitzen zaien izangaiek, kontratua formalizatu baino lehen.

Agiri horiek aurkezten ez dituztenak ezin izanen dira kontratatu, behar bezala frogatutako ezinbesteko kasuetan izan ezik. Haien jarduketa guztiak baliorik gabe geldituko dira, parte hartzeko eskabidean faltsukeriarik egonez gero izan dezaketen erantzukizunaren kalterik gabe.

Aurreko baldintzak probak hasteko egunari dagozkiola ulertzeaz gain, kontratua formalizatzeko orduan ere bete beharko dira.

Ez da kobratuko espediente formalizatzeko tasa eta azterketa-eskubideak.

### 3.- Epaimahai kalifikatzailea.

#### 3.1. Epaimahai kalifikatzaileak honako kide hauek izango ditu:

Lehendakaria: Alfredo Arruiz Sotés, Uharteko Udaleko alkatea edo honek eskuordetzen duena.

Idazkaria: Gustavo Jiménez Martín, Uharteko Udaleko giza baliabideen kudeatzailea.

Batzordekidea: Alfredo Osés González, Antsoaingo Udaleko kirol teknikaria.

Mahaikidea: Álvaro Marcén Echandi, Uharteko Udaleko idazkaria.

Batzordekidea: Langileen legezko ordezkariak izendatu beharrekoa.

#### 3.2. Epaimahaia hautaprobak hasi baino lehen eratu beharko da.

3.3. Epaimahaiak gehiengoz erabakiko ditu deialdiaren oinarriak ulertu eta aplikatzeko moduz sor daitezkeen arazo guztiak.

#### 3.4. Epaimahaiak aholkulari adituen laguntza izan dezake probarako.

### 4. Deialdiak proba teoriko-praktiko bakarra eta lehiaketa-fase bat izango ditu.

#### 4.1. Proba teoriko-praktikoa

Proba teoriko-praktikoa: kirol kudeaketarekin zerikusia duten garapen proba praktikoa bat edo gehiago egitea.

Proba honetan 50 puntu emanen dira gehienez. Proba hasi aurretik zehaztuko da proba baloratzeko irizpidea. 25 puntu beharko dira proba gainditzeko.

#### 4.2. Lehiaketa fasea

Lehiaketaldian, gehienez ere, 50 puntu lortzen ahalko dira baremo honen arabera. Proba praktikoa gainditu dutenek soilik lortuko dute puntuazioa.

##### *Antzeko eginkizunetan emandako zerbitzuak*

1. Edozein administraziotan emandako zerbitzuak, lanpostu hauetan: B edo A mailetan kokatutako kirol kudeaketako lanpostuetan kudeatzaile, koordinatzaile, teknikari, zuzendari edo antzekoa (zuzeneko kirol jarduerarekin lotutako enpleguak izan ezik: aretoko teknikaria, monitorea, etab.): urte bakoitzeko 4 puntu.

2. Administrazioetik kanpoko enpresetan egindako zerbitzuak: 2 edo 1 kotizazio taldeetan kokatutako kirol kudeaketako lanpostuetan kudeatzaile, koordinatzaile, teknikari, zuzendari edo antzekoa (zuzeneko kirol jarduerarekin lotutako enpleguak izan ezik: aretoko teknikaria, monitorea, etab.): urte bakoitzeko 3 puntu.

##### *Oharrak:*

a) Urtebetetik beherako zerbitzuan emandako prestazioak proportzionalki hainbanatuko dira. Esperientzia profesionala enpresa edo administrazio kontratatzailearen ziurtagiri egokia aurkeztuz frogatuko da, lan-bizitzarekin batera.

Enpresa edo administrazio kontratatzailearen ziurtagirietan honako hauek jaso beharko dira: lanbide kategoria, lanaldi mota (lanaldi partzialen kasuan ehunekoa edo ordu kopurua adieraziz) eta lan egindako aldiaren hasiera eta amaiera data zehatzak.

c) Deialdiaren iragarkia argitaratzen den egunetik aurrera egindako zerbitzuak ez dira baloratuko. Merezimenduak frogatzen dituzten agiriak hautaketan parte hartzeko hasierako eskabidean aurkeztu beharko dira, agiri orokorrekin batera.

#### 4.3. Azken kalifikazioa lortzeko, izangai bakoitzak bi faseetan lortutako puntuazioak batuko dira.

Guztira 100 puntu emanen dira. 50 puntu beharko dira gainditzeko. Izangaiek bi egun izanen dituzte egoki iruditzen zaizkien alegazioak egiteko.

#### 5.- Azterketa gainditu dutenen zerrenda eta deialdia.

5.1. Proben kalifikazioa amaitutakoan, epaimahaiak Uharteko Udalaren iragarki oholean eta [www.huarte.es](http://www.huarte.es) webgunean argitaratuko du gainditutakoen zerrenda, lortutako puntuazio osoaren arabera, eta alkateari bidaliko dio, hark onar dezan, hautapen prozesuaren espediente osoarekin batera. Gainditzeko dutenek, gainera, etorkizuneko aldi baterako beharrak betetzeko zerrendan sartuko dira, betiere udalaren araudiaren barruan. Berdinketarik gertatuz gero, zozketaz ebaztuko da.

5.2. Kontrataturako pertsonen alta emango zaie eta Gizarte Segurantzako Erregimen Orokorrean afiliatuko dira.



**Uharteko Udala**  
**Ayuntamiento de Huarte**

Pl. San Juan, 1  
31620 UHARTE / HUARTE  
(Nafarroa / Navarra)  
IFZ / CIF – P 3112100 G  
Tel. 948 33 07 61  
Fax 948 33 19 13  
[ayuntamiento@huarte.es](mailto:ayuntamiento@huarte.es)  
[www.huarte.es](http://www.huarte.es)

6.- Errekurtsoak. Deialdi honen, bere oinarrien eta aplikazio egintzen kontra, errekurtso hauetako bat paratzen ahalko da, hautara:

- a) Berraztertze errekurtsoa, egintzaren organo egileari zuzendua, hilabeteko epean, jakinarazi edo argitaratu eta biharamunetik hasita.
- b) Administrazioarekiko auzi-errekurtsoa, Nafarroako Administrazioarekiko Auzien Epaitegiari zuzendua, bi hilabeteko epean, errekurritutako egintza edo erabakia jakinarazi edo argitaratu eta biharamunetik aitzina.
- c) Gora jotzeko errekurtsoa, Nafarroako Administrazio Auzitegiari zuzendua, hilabeteko epean, errekurritutako egintza edo erabakia jakinarazi edo argitaratzen denetik aitzina.

Epaimahaiaren egintzen aurka gora jotzeko errekurtsoa paratzen ahalko da, deialdia egin duen udal organoari zuzendua, hilabeteko epean, errekurritutako egintza edo erabakia jakinarazten denetik aitzina.

Uharte, 2026ko urtarrilaren 20a.-Uharteko Udaleko Alkatea, Alfredo Ruiz Sotés jauna.